



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

GIZARTE ONGIZATE BATZORDEKO AKTA

Eguna : 2014-10-27
Hasiera-amaiera : 18: 30
Tokia : Batzar-gela 1

Bertaratuak:

Ongizateko batzorde burua: Rakel Elu

BILDUko kideak: Haize Badiola
Juan Ramon Iriondo

ADEMBI : Nekane Landaribar

Antiguako Ama : Rosario Ducay
Rosario Urruzuno

DANON ARTIN : Juanjo Bedialauneta
Araitz Urrosolo

GORABIDE : Begoña Zelaia
Inmaculada Laka
Jose Ibarloza

Minbiziaren aurkako elkartea: Marije Ibarloza

Ondarroako Alzheimer familia taldea: Juan M^a Artola

GAI ZERRENDA

- 1.- Aurreko aktaren onarpena.
- 2.- Errenta baxua duten herritarrentzat udal tasak ordaintzeko diru laguntzak.
- 3.- Gizarte larrialdietako laguntzak.
- 4.- Taldeen ekarpenak.
- 5.- Eskari-galderak



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Esandakoak :

1.- Bazkide berriaren aurkezpena egiten da lehenbailehen. Nahi dute Ondarroan Alzheimerra duten familiarren elkarteak sortu. Horren prozesuaren azalpenak ematen dituzte.

Ondoren aurreko bilerako akta onartzen da aho batez.

2.- 2014ko udal tasetarako diru laguntzen araudiaren azalpenak ematen dira, eskatzeko epea, azaroaren 13tik 28ra izango da. Bizkaiko Foru Aldundiko buletinera bidaliko da.

3.- 2014. Urteko Gizarte Larrialdietarako laguntzetarako Eusko Jaurlaritzak eman duen diru kopurua bukatu denez, 76.572 € eman du, eta eskaera ugari dagoenez, Ondarroako Udalak 15.000 € gehiago ipini ditu. Gipuzkoako herri batzuetan mozioa aurkezten dabilta egoera hauetarako eskatzeko Eusko Jaurlaritzari gehitzea aurrekontua.

4.- Taldeen ekarpenak:

⌚ Danon Artin elkartekoak azaltzen dute janaria edukitzeko behar den eran osasun eta sanitatea betetzen duten lokalak behar dutela.

Asuntua da lokal hori egokitu behar duela udalak eta uste da laster izango dela. Lokal hori Gurutze Gorrikoentzako ere erabilgarria izan daiteke beraien Kitak banatzeko. Lokala laster prest eukitzeko premia izugarria dagoela, elikagaien bankuarekin elkarlana bideratu ahal izateko.

Iazko moduan azaroan janari bilketa antolatzea pentsatu dute herrian zehar, ikastetxeak barne eta dagokion kanpaina egitea komenigarria ikusten da.

⌚ Gorabideko familiarrak agertzen dute datorren udarako berriro eskatu behar dela anfibio bat herriko hondartzarako, bestalde eskertu dute Musika eskolako tasetan kontuan izatea diskapazitatea duten pertsonak.

⌚ Minbiziko elkarteko ordezkariak dio lokalik ez dutela. Galdetuko da nola bideratu daitekeen hau zeren eta aspalditik dator eskaera hau.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

⌚ Adembikoak, orain arte moldatu direla, baina lokala edukiko balute eskertuko luketela.

⌚ Alzheimer elkarteko ordezkariak dio Mutrikun izango dutela beraien lokala, Mutrikuko elkartekoekin batera ibili direlako beste batzuei laguntzen.

Baina herriko familiarrekin batzarrak eta hitzaldiak, Ondarroako Antiguako Ama elkartean izango dira.

⌚ Antiguako Ama elkartekoak azaltzen dute 2014ko egutegitik, azaroaren 29an San Andres eguna ospatuko dutela.

Eskari-galderak

1.- Batzordeburuak azaltzen du udalak eta Foru Aldundiak Artibai Egoitzako 2014ko hitzarmena eguneratu ondoren sinatu dutela. Hitzarmenaren barruan 21 ohe sartzen dira baina 2015erako zenbat hitzartuko diren ikustear dago. Aho batez onartzen da hitzarmena plenora eramatea batzordearen onespenearekin.

Zinegotziak azaltzen du Bizkaiko Foru Aldundira Sergio Murillo jaunarengana berriro joango dela Udala Eguneko Zentroaren eta Egoitzaren oheak gehitzea eskatzera. Hurrengo batzarrean azalduko dira bertan esandakoak.

Arratsaldeko 20:00etan bukatu da batzarra.

Ondarroan, 2014ko azaroaren 27an